

JESUS ETA AZKEN AFARIKO
MAHAIKIDEAK

1

Aitarengana joan behar ta
gurutzean hil-aurretik,
zer testamentu eskeini euskun
Jaunak bere bihotzetik.
Aldendu nahi ta ezin aldendu
bere lagunen artetik,
hau miraria asmau ebana
maite ginduan partetik.

2

Ogi-ardauak eskuan hartu
eta beti ohi ebanez,
apostoluei banandu eutsen
maitasun haundiz esanez:
“Hartu eizue jan eta edan
ta Ni gomutan izanez;
alkarrekin bat izango gara
Afari hau jan-edanez”.

3

Jaunaren mahaian zer izango eta
eztabaida bat gogorra:
euren artean nor haundiena,
hango hasarre borbora!
Hau ikusita, zenbat mindu zan
Jesus bihotz-sentikorra,
eta abixua emon eutsien
danontzat esanda, horra:

4

“Ea mutilok, esaidazue
kontu hori zer izan da?
Zuon artean nor haundiena,
a zer nolako demanda!
Zuen artean haundienak dau
beti zerbitzeko txanda,
nok baino nok on gehiago egin
danen aurretik joanda”.

5

“Hemen nozue zuen artean
beti danon zerbitzari,
nire bizia pekatu-ordain
eskeiniz nire Aitari.
Zuek Maixutzat hartzen nozue,
jarrai nire bideari;
esan, bestela, zertarako dan
gaurko otoitz ta afari?”.

6

Bai, sinisten dot maite nozula
ta gehiago ezinean,
horrek bihotza jartzen deust, Jesus,
borborka irakinean.
Gaur zure mahaian egon ondoren,
hauxe daukat jakinean:
bihotza jarri nahi deustazula
Zurekin maiteminean.